

GAZTAÑAGA BASERRIA (duela 200 urteko baserria edo gehiago)

Azken generazioko semeak:

1. Marcos (Hilda)
2. Placido (Hilda)
3. Mertxe
4. Josetxo

Gaztañaga baserria Etxabe baserriko terrenotan egina da.

Gaztañaga baserria dena, hasieran txabola bat zen, ardien txabola bat, borda bat. Mertxen "biraitona" Hernaniko emakume batekin ezgondu behar zuela eta, txabola hura egokitu eta bertara joan ziren bizitzera.

Mertxen aitona ere bertan jaio zen eta honek ere handitu zuen Mertxen Aita ere bertan bizitzeko ezkontzean. Mertxen aita (Aitak ere gehiago handitu zuen) Usurbilgo emakume batekin ezkondu zen eta Gaztañagara joan ziren bizitzera.

Zergatik Gaztañaga? Inguruan gaztainondo asko zeudelako.

Mertxen aitonak eta aitak sagardoa egiten zuten etxean eta morroi bat ere ekartzen zuten.

Aita hil zenean tolarea saldu zuten.

Sagastia beheko karreteraino iristen zen.

Karreteran beste aldean tranbia pasatzen zen beste aldean ere sagastia zuten.

Borda baserri inguruan ere sagastia bazuten Gaztañagakoek.

Baserrian 5-6 kupela zituzten, eta sagardoa dastatzeko garaia zenean medikuak eta fabriketako langileak etortzen ziren sagardoa dastatzera. Dastatu eta sagardoa gustatzen bazitzairen botelak erosten zituzten eta sagardo garaia bukatzean enbotelatu egiten zuten eta pertsona haiei ematen zien gustatzen zitzairen sagardo hura botelatan.

Mertxeren amak, arraia saltsan, atuna tomatearekin, txuletak eta kaxuelak prestatzen zituen.

Josetxo, beste anaia komertziala zen eta baserriko kontuak ez zituen hainbeste bizitu.

LAFFITTE VILLAkoak ere ezagutzen zituzten. Bi alaba zeuzkaten. Bat soltera eta bestea Hernaniko gizon batekin ezkondu zen. Vicente Zaraguetaren gurasoak izango zirenak. Zaragueta jauna ez zen besteen mailakoa "pobrea" zen, ez zen Laffayetten kategoriakoa. "Solterak" desederatu zuen ezkondua. "Soltera" hil zenean, Vicente Zaragueta etxea eta terrenoekin gelditu zen por herencia..

“Soltera” ezkondu zuten, Donostiako administradore batekin erdi hilik zegoena. Ahalik eta terreno gehienekin gelditzeko. Nahiz eta hauek ezkondu, Vicenterentzat gelditzen ziren esan bezala etxea eta terrenoak.

Vicenteren aitona (Vicenteren amaren aita) Gaztañagara joaten ziren bazkaltzera.

Mertxe eta bere lagunak eskolatik ateratzean, bera gogoratzen denez, sagardoa enboteilatutakoan kupeletan gelditzen zen sagardoa (azkena gelditzen zena) beraiek edaten zuten.

Gaztañagaren aurrean behean bola tokia eta tokan ibiltzeko lekua zuten.

Herriko pertsonaiak= Xixilio beti mozcorra ibiltzen zen= kobradorea zen.

Martxoa eta Apirilean joaten zen jendea baserrira sagardoa dastatzera.

ITZALPE

Angel kalean, (Santa Maria eliza inguruan kale motz bat), Gaztañagakoek lokal bat omen zuten BI KUPELEKIN.

Astigarragatik Karreto barrikan, 4 gurpileko gurdian idien laguntzaz donostiara bi kupel eramaten zituen eta han ustutzen zituzten han zeuden beste bi kupeletan. Lan hori Mertxeren aitak egiten zuen.

Nork egiten zuen lokal hartan lan?

Mertxeren amak eta Loiolako beste bi neskak lan egiten omen zuten.

Mertxeren ama, lehenik Donostiako merkatuan saltzen zituen etxean ekoiztutako produktuak. Esnea, arraultzak eta baratzeke barazkiak. Han bukatzean lokalera joaten zen.

Nor joaten zen lokalera?

Arrantzaleak eta handik lanean zebilen jendea joaten zen hamaiketako egitera edo gosaltzera. Jendeak kaxuelak eramaten zituen bertan jateko.

URTE GUZTIAN KARRETOAK, Donostiako zaborra jasotzeko erabiltzen zituzten. Kalez kale joaten omen ziren Gaztañagakoak eta astigarragatik beste hiru bat ere joaten omen ziren zaborra jasotzera. Donostiako barrenderoek zaborra jaso eta karretora botatzen zuten. Hauek zaborra hartu eta herriberara botatzen zuten composta, ximaurra egin eta ondoren beren baratzetan erabiltzeko.

Txoperak basuraren asuntun guztia eramaten zutenak ziren.

Goizeko hirutan etxetik atera eta lanean hasten ziren.